

HERNANIKO II.BERDINTASUN PLANA

2010-1013

2015 urte arteko luzapena¹



¹ II Berdintasun Planaren garatze epea amaitu arren, bertan agertzen diren helburu asko oraindik burutu gabe daudela ikusirik plana 2015 urte bukaera arte luzatu da.

AURKEZPENA-SARRERA

Emakumeen eta gizonen arteko parekidetasunaren aldeko ahalegina ez da berria. Horren lekuko da aurkeztera gatozen txostena. Tamalez, errealitateak, besteak beste plan hau egiteko beharra erakusten digu. Bertan biltzen diren ideia, jarduera eta antolamendurako puntu guztien atzean, betetzeko dauden helburuak baitaude. Azken hamarkadetan emakumeen parte-hartzea esparru gehienetara zabaldu bada ere, lan asko dago egiteko gizon eta emakumeen arteko harremanak parekideak izan daitezen maila sozial, politiko zein ekonomikoan: sexuak agerian edo ezkutuan diskriminatzeak aitzakia izaten jarraitzen du.

Desberdintzearen, bazterketaren, bereizketaren eta kanporatzearen aurkako borrokan, politika eta prozesu ezberdinak jarri dira abian, unean uneko beharrei erantzunez, berrituz, egokituz eta aldatuz joan diren ekintzak martxan jarri. Garai berriek politika eta ekintza-lerro berriak eskatzen dituzte. Azken helburuak ordea, hasierako bera izaten jarraitzen du; hau da, emakumeen eta gizonen arteko parekidetasuna eta aukera berdintasuna oinarri duten balioetan hezi eta gizarte parekide bat eraikitzea. Helburu hau lortzea denon ardura da, jendarteko eragile guztientzat, eta beraz, denok dugu ardura eta denok gara erantzule. Horregatik elkarrekin bidea eginez, indarturik aterako gara, parekidetasunaren lasterketan guztiok batera bagoaz lehenago iritsiko gara helmugara.

Hernaniko II. Berdintasun Planak, Hernaniko emakumeen eta gizonen arteko parekidetasuna lortzeko helburua berresten du. I. Udal Berdintasun Planari esker martxan jarri ziren hainbat gai mantendu eta hobetu nahi ditugu. Parekidetasunaren zeharkakotasuna dela-eta, Udal sail eta gizarte eragile guztien ardura da gizon eta emakumeen aukera berdintasuna bermatuz aritzea bakoitzaren jardunean. Horregatik, batetik, Udal administrazioko teknikari eta politikariek egin da plana, eta bestetik herriko eragileekin. Batez ere Udaleko sail desberdinetan generoaren ikuspegia txertatu eta indartzeko ahalegina egin da. Hauxe da, II. Berdintasun Planeko erronka nagusienetarikoa. Ulertzen baitugu, bereizkeria-egoerak mantentzen dituzten trabak eta egiturak eraldatzeko garaian, funtsezkoa dela udalerriko bizitzaren sektore ezberdinetan eragileen parte-hartzea, eta nola hobeto etxetik hasi eta eredu ematen hastea baino.

Hernaniko II. Berdintasun Plana abian jartzeko gogotsu eta indarrez gaude. Hernaniko Udalak eredu izan behar du, parekidetasun neurriak egoki landuz eta ahal den neurrian jendarteko eragile desberdinei gauza bera egin dezaten bultzatuz eta horretarako baliabideak eskainiz. Gustuko lekuan aldaparik ez dagoenez, eta parekidetasunerako bidean nekerik ere ez, grinaz eta ahaleginez egingo dugu ibilaldia.

Marian Beitialarrangoitia Lizarralde
Hernaniko Alkatea

SARRERA OROKORRA

Hernaniko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako II. Plana, Hernanin berdintasuna bultzatzeko tresna da. Plana eraginkorra izateko udalerrriaren eta udaletxearen ezaugarriak hartu dira aintzat, eta horren arabera helburuak ezarri dira. II. Berdintasun plan honek erreferentzia bi ditu:

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko 4/2005 Legea.
- EAEn Emakume eta Gizonen arteko IV. Plana

Bi erreferentzia hauek oinarritzkoak dira egun edozein plan eratzerako garaian.

Bestalde, nabarmendu behar da, plana egiterako prozesuan, lan talde eta elkarrizketen bitartez, udaleko teknikariek eta udalerriko elkarte nagusiek parte hartu dutela. Beraien lankidetzaz ezinbestekoa izan da prozesu guztian zehar. Gainera, Hernaniko ordezkari politikoek plan hau aurrera ateratzeko konpromiso osoa adierazi dute.

Udalerrirako eta batik bat, emakumeentzat hain gai garrantzitsua izanik, gizarte-agente guztiek parte hartzea funtsezkoa dela uste da; halaber, udal sailen arteko eta udalerriko gizarte agenteen arteko koordinazioa eta elkarlana ere oinarritzkoa izango da.

Udal politikaren sektore bakoitzeko lan-tresna izango da Plana; eta, horretarako, II. Berdintasun Plana beste sail batzuetako programa eta planen osagarria izateko saikera egin da.

Planaren egitura

Berdintasun planak ondorengo egitura jarraituko du:

- **Udalaren eskumenak eta funtzioak**
- **Plana gidatzen duten printzipioak**
- **Helmugak:** Planaren helmugak zehazteko EAEn Emakume eta Gizonen arteko IV. Planean jasotzen diren ardatzak jarraitu ziren planean. 2015 urte arteko luzapenean helmugetako bat kendu da, falta diren bi urtetan ez delako horren inguruko ekintzari aurreikusten.

HELMUGAK	EAEKO Emakume eta Gizonen Arteko IV. Planaren ARDATZAK
Udaleko zerbitzu eta arlo ezberdinetan genero ikuspegia txertatzeko oinarritzko egiturak sortzea	MAINSTREAMINGa
Hernaniko emakumeek beraien garapen personal eta sozialerako baliabideak izan ditzatela bermatzea	AHALDUNTZEA ETA GIZARTEAREN ETA POLITIKAREN ARLOKO PARTE-HARTZEA
	BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA
Emakumeen aurkako indarkeria gutxitzea eta biktimen arreta hobetzea	EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA
Berdintasuna lortzeko lanean, gizonek ere parte hartzea eta gizonezkoa izatearekin zerikusia duten gaiak lantzea	

Bestetik, EAeko IV. Planean jasotzen den ardatz bat ez da jaso ez den beste ardatz bat ere sartu da: Gizontasunarena. Generoaren araberako gizartearen antolamenduak eragin zuzena du, baita ere, gizonezkoengan. Hernanin, iada ari dira honen inguruko gogoeta egiten, beraz, gaiari loturiko ardatza jasotzea ere garrantzitsua da.

Helmuga bakoitzaren barruan, helmuga honetara iristeko erabiliko diren estrategiak eta ekintzak jasotzen dira. Ekintza bakoitzak bere arduradun edo eragileak, konograma, aurrekontua eta ebaluaketarako indikatzaileak ditu.

- **Ebaluaketa egiteko fitxak.**

UDALEN ESKUMENAK ETA FUNTZIOAK

Berdintasun Legediaren arabera

Berdintasun plana legezko eskakizuna dela aintzat hartu behar da. Berdintasun planak haxe eskatzen du:

“herri aginteeek pertsonen eta taldeen berdintasunerako baldintzak sustatzeko eta hori lortzeko oztopoak zabaltzeko betebeharra dutela, berdintasun hori benetan eta modu eraginkorrean gauzatu dadin”.

Legeak honako funtzioak ezartzen dizkio Toki Administrazioari:

- a)-Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea, bere administrazio-jardueran generoikuspegia integratze aldera.
- b)-Toki mailako ekintza positiboko neurriak gauzatzea.
- c)-Toki mailako programak egitea, Jaurlaritzaren plangintza orokorraren esparruaren barruan eta forualdundiek egiten dituzten programen esparruaren barruan.
- d)-Estatistikak egokitu eta eguneratzea, horien bitartez, emakumeek eta gizonen bizi duten egoeraren ezberdintasunak ezagutu eta neurriak ezartzeko.
- e)-Emakumeen eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea toki mailan.
- f)-Emakumeen eta gizonen desberdintasun-egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruz sentsibilizazio-jarduerak egitea.
- g)-Tokiko araudia nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera.
- h)-Herritarrei, eta batez ere emakumeei, informazioa eta orientabidea ematea alde batetik emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten baliabideei eta programei buruz; eta bestetik, bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeei oinarritzko gizarte-eskubideak eskuratzea bermatzeko programa eta zerbitzuei buruz ere.

i)-Programak osatzea edo zerbitzuak ematea, bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarrizko gizarte-eskubideak eskuratzeko aukera izan dezaten, zerbitzuon izaera dela-eta udal mailan eman beharrekoak direnean.

j)-Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea helburu duten baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioak ezartzea, beren izaera dela-eta udal-mailan eskaini beharrekoak direnean.

k)-Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek toki- eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen laguntzen badute.

l)-Toki-eremuan sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria-egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak hartzea.

m)-Bakoitzari bere eskumenen eremuan agindu dakioken beste edozein eginkizun betetzea.

PLANA GIDATZEN DUTEN PRINTZIOAK

Konpromezu politikotik abiatutako plana

Borondate politikoa ezinbesteko baldintza da emakume eta gizonen berdintasunerako politikak gauzatzeko. Borondate politiko honek bere islada izan behar du udal aurrekontuetan.

Prozesuari garrantzia ematen dion plana

Plana bezain garrantzitsua kontsideratzen da plana diseinatzeko prozesua bera. Prozesu guztian zehar hartu-eman zuzena mantenduko da Hernaniko udal teknikariek, herriko elkarteekin eta herritarrekin. Hartu-eman hauen bitartez, informazio, iritzi eta ekarpenak jasotzeaz gain, prozesuan inplikaturako agente guztiekin sentsibilizazio eta formakuntza lana egingo da.

Partehartzailea

Plana disenatzeko prozesu guztian zehar ezinbestekoa da udal teknikari, gizarte eragile eta herritarren partehartzea. Partehartze hau bultzatzeko teknika ezberdinak erabiliko dira.

Plan errealista

Prozesu honen amaieran aurkeztu nahi den plana, plan errealista izatea bilatzen da. Helburu errealistak planteatuko dituen, Hernaniko errealitatearekin bat datorrena eta planean zehaztutako ekintza guztiak aurrera eramango dituen.

Aniztasunean oinarritutako plana

Emakume guztietan errepikatzen den ezaugarria da aniztasuna. Sexua ez da emakumeen bizitzak baldintzatzen dituen aldagai bakarra, adinak, formakuntza mailak, jatorriak, klase sozialak, etab. ere eragin izugarria dute. Aniztasun hau kontuan izango da Hernaniko plana egiterakoan.

Herritar guztientzako plana

Berdintasun planak ez dira baztertzailak, hauen helburua genero ezberdintasunak gainditzea da, eta horretarako ezinbestekoa da bai emakumeen eta baita gizonen inplikazioa. Planak bi arrazoiengatik egon beharko luke gizonei ere zuzendua:

-Ezin litekeelako bi alderen arteko berdintasunerako prozesua abiatu aldeetariko bat bazteruz. Oso zaila izango litzateke, adibidez, erantzunkidetasunean aurrera pausoak ematea gizonengan jarrera eta pentsakera aldaketak bultzatu gabe.

-Gizonak ere genero sistemaren eraginez sortutako gizontasun eredupean bizi dira. Eredu hauen eraginez hainbat arazo jasaten dituzte (arriskuzko portaerak, osasunerako kaltegarriak diren praktikak, aitatasun ereduak, etab.) eta hauek ere landu egin beharko lirateke.

Zerbitzu eta errekurtsioak sendotuko dituen

Berdintasun Planean jasoko diren ekintzen helburua iada Hernanin dauden zerbitzu eta errekurtsioak sendotzea da. Udaleko sail ezberdinetan egiten diren, eta ondo funtzionatzen duten, ekintza, jardura etab.ak indartzea hauetan genero ikuspegia txertatuz.

Ebaluagarria

Ebaluaketa oinarritzkoa da plangintza eta eskuhartze prozesuetan. Ezinbestekoa da planaren eraginkortasuna neurtzea indarrean egon den epea amaitu eta gero. Ebaluaketan lortutako emaitza honak (eta txarrak) jaso behar dira, honela jarraian egingo diren eskuhartze berriak egoki diseinatzeko.

LEHEN HELMUGA: UDALEKO ZERBITZU ETA ARLO EZBERDINETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEKO OINARRIZKO EGITURAK SORTZEA

Plan hau egin ahal izateko ezinbestekoa izan den diagnostikoan agerian gelditu denez, Hernanin emakume eta gizonen berdintasuna bultzatzeko herrira begira ekimen ugari egin diren arren, udal mailan, zerbitzu eta arloen barne funtzionamenduan, genero ikuspegia txertatzeko oinarrizko egiturak falta zaizkie.

Botere publikoetatik abian jartzen diren politika eta ekintzetan genero ikuspegia txertatzea *Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legearen* (4/2005 Legea, Otsailaren 18koa) oinarrizko printzipioetariko bat da. Printzipio bera jasotzen da Emakundeko *EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planean* ere. Izan ere, udalerrri batek emakume eta gizonen aukera berdintasunean aurrea egin nahi badu ezinbestekoa da bide horretan udal sail guztien konpromezua eta inplikazioa lortzea.

Hernaniko Udalean zentzu honetan dagoen gabeziari erantzuteko lau estrategia proposatu dira helmuga orokor honen baitan.

1-HELMUGA: UDALEKO ZERBITZU ETA ARLO EZBERDINETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEKO OINARRIZKO EGITURAK SORTZEA

1.go ESTRATEGIA: Udaleko dokumentu guztietan hizkuntza, irudi eta eduki sexistak ez direla erabiltzen bermatzea.

EKINTZA	ERAGILEAK	2014	2015	AURREKONTUA	INDIKATZAILEAK
Irudi eta hizkera ez sexisten inguruko formazioa eskaini udal langile eta zinegotzi guztiei.	BERDINTASUN SAILA PERTSONAL SAILA				- Formazioa egindako langile eta zinegotzi kopurua.
Udaleko dokumentuetan hizkuntza, irudi eta eduki sexistak ekidin.	SAIL GUZTIAK				- Egindako dokumentu kopurua - Eduki, hizkuntza eta irudi sexistarik gabeko dokumentuen kopurua
Noizean behin gainontzeko sailetatik plazaratzen diren dokumentuak berrikusi, eta behar izanez gero, zuzenketak proposatu.	BERDINTASUN SAILA				- Berrikusitako dokumentu kopurua - Egindako zuzenketa kopurua
Herriko elkarteei hizkuntza eta irudi ez sexisten inguruko gida helarazi.	BERDINTASUN SAILA				- Bidalitako gida kopurua.

2. ESTRATEGIA: Berdintasun Saila udaleko gainontzeko sailekin eta herriko eragile sozialekin koordinatzea.

EKINTZA	ERAGILEAK	2014	2015	AURREKONTUA	INDIKATZAILEAK
Sailen arteko koordinazio sistema bat adostu (gai transbersalen mahaiaren osaketa).	BERDINTASUN SAILA				- Adostutako sistema -Jarraipen sistemaren egokitasuna
Herriko eragile sozial ezberdinekin berdintasuna bultzatzeko harreman sareak sortu eta mantendu.	BERDINTASUN KONTSEILUA				-Harremandutako elkarte kopurua -Zenbatekin partekatu duten ekintza edo proiektu bat.

3. ESTRATEGIA: Berdintasuna Sailaren eta Kontseiluaren irudia indartzea udal barnean eta herri mailan.

EKINTZA	ERAGILEAK	2014	2015	AURREKONTUA	INDIKATZAILEAK
Web orria eguneratua mantendu.	BERDINTASUN SAILA				-Web orriaren eta blog-aren hobekuntza. -Zenbatero eguneratzen diren.
Berdintasun Saitetik abian jartzen diren ekimen eta proiektu guztien berri ematen jarraitu (Kronikan, egunkarietan, Molotoff irratian, kartelen bidez, eta abar.).	BERDINTASUN SAILA				-Zenbatetan agertzen den komunikabideetan. -Herrian duen oihartzuna.
Berdintasun Kontseiluaren bileretara gonbidatu gaiarekiko interesa duten herriko eragile ezberdinak, kontseilua indartzeko.	BERDINTASUN KONTSEILUA				-Egindako gonbidapen kopurua. - Parte hartzen duten eragile kopurua

4. ESTRATEGIA: Udaleko kontratazio eta dirulaguntza politketan genero ikuspegia txertatzea.

EKINTZA	ERAGILEAK	2014	2015	AURREKONTUA	INDIKATZAILEAK
Enplegu publikorako eskaintzak aztertu egon daitezkeen desoreken aurrean, hauek murrizteko neurriak proposatuz.	PERTSONAL SAILA BERDINTASUN SAILA				-Argitaratutako enplegu eskaintza kopurua.
Enplegu publikorako azterketetan berdintasunarekin harremandutako edukiak sartu.	GOBERNAZIOA PERTSONALA				-Egintako enplegu publiko eskaintza kopurua. -Berdintasun edukiak sartu diren eskaintza kopurua.
Udaleko ordenantza orokorrean enpresa nahiz erakundei dirulaguntzak emateko genero irizpideak onartu.	GOBERNAZIOA				-Onartutako genero irizpideen betetze maila.
Sail ezberdinetako diru laguntzen oinarriak berrikusi eta genero irizpideak txertatu.	KULTURA EUSKARA KIROLA LANKIDETZA				- Irizpideak ezartzea -Bete diren irizpide kopurua

2-HELMUGA: HERNANIKO EMAKUMEEK BERAIEN GARAPEN PERTSONAL ETA SOZIALERAKO BALIABIDEAK IZAN DITZATELA BERMATZEA.

Planaren bigarren helmuga emakumeen ahalduntzera bideratzen da. Ahalduntzea emakumeen bakarkako edo taldekako kontzientzia hartze prozesu bat da, emakumeek politika eta ekonomia arloan duten tokia sendotzera eta esparru hauetan parte hartzera eta boterea lortzera bideratzen da.

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3. artikulua jasotzen duen moduan “Euskal herri-aginteeek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeek eta gizonen eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, eta arauetan aitortu lekizkiekeen gainerako oinarritzko eskubideak, aukera berdinekin baliatzen dituztela bermatzeko, boterea eta baliabide eta etekin ekonomikoak eta sozialak eskuratu eta kontrolatzea barne”.

Legeak ezarritakoa betetzeko eta Hernaniko emakumeen ahalduntze prozesuei bultzada bat emateko helmuga honetan lau estrategia planteatzen dira.

2-HELMUGA: Hernaniko emakumeek beraien garapen pertsonal eta sozialerako baliabideak izan ditzatela bermatzea.

1.go ESTRATEGIA: Gizartean aktiboki parte hartzeko eta beraien bizitzak kontrolatzeko emakumeek dituzten gaitasunak indartzea.

EKINTZA	ERAGILEAK	2014	2015	AURREKONTUA	INDIKATZAILEAK
Jabetza eskolaren proiektuarekin jarraitu.	BERDINTASUN SAILA ETA KONTSEILUA				- Eskeinitako tailer kopurua. - Parte hartzaile kopurua.
Hezkidetzan formakuntza eskaini herrian egiten diren eskolaz kanpoko jardueretako arduradunei eta kontratatutako zerbitzuei.	BERDINTASUN SAILA IKASTETXEAK GURASO ELKARTEAK EUSKARA SAILA				-Eskainitako formakuntza kopurua. -Partehartzaile kopurua.

2. ESTRATEGIA: Udaleko plangintza eta erabaki hartze esparruetan emakumeen parte hartzea bultzatzea eta indartzea.

EKINTZA	ERAGILEAK	2014	2015	AURREKONTUA	INDIKATZAILEAK
Udalan abian jartzen diren prozesu parte hartzaileetan genero irizpideak txertatu pixkanaka.	SAIL GUZTIAK (Bereziki PARTE HARTZE SAILA)				-Abian jarritako prozesu parte hartzaile kopurua. -Genero irizpideak kontutan hartu dituen prozesu kopurua
Jai batzordean jai parekideen inguruko hausnarketa bultzatu.	KULTURA FESTA BATZORDEA BERDINTASUN SAILA				- Emakume eta gizon parte hartzaileen kopurua. - Akten arabera zenbat aldiz hartzen duten hitza emakumeek


3. ESTRATEGIA: Emakumeen elkartegintza sustatu.

EKINTZA	ERAGILEAK	2014	2015	AURREKONTUA	INDIKATZAILEAK
Herriko emakume taldeen eta etorkizunean sortu daitezkenen ekintzak babestu.	BERDINTASUN SAILA				- Emandako dirulaguntzak - Promoziorako garatutako ekintza kopurua.
Emakumeen parte hartzea bultzatu bai herriko emakume taldeetan edo beste elkarte batzuetan, horretarako gure esku dauden baliabideak erraztuz.	BERDINTASUN SAILA BERDINTASUN KONTSEILUA				- elkarreetan parte hartzen duten emakume kopurua.
PLAZA FEMINISTA espazioa indartu eta horretarako behar diren baliabideak jarri.	BERDINTASUN SAILA GOBERNAZIOA				

4. ESTRATEGIA: Emakumeen ekarpenak bisibilizatu eta publikoki aitortu.

EKINTZA	ERAGILEAK	2014	2015	AURREKONTUA	INDIKATZAILEAK
Emakumeen nazioarteko eguna ospatzen jarraitu.	BERDINTASUN SAILA				-Abian jarritako ekintzak
Kultura sailetik programatzen diren antzerki lanetan emakumeek idatzi edo zuzenduriko obrei lehentasuna eman, hauen lanari balioa emanez.	KULTURA				-Programaturiko antzerki lanen kopurua -Emakumeek idatzi edo zuzendutako obra kopurua
Kulturatik antolatzen diren ekintzetan (musika emanaldiak, erakusketak, filmeak, eta abar.) emakume sortzaileak bultzatu.	KULTURA				-Antolatutako ekintza kopurua -Emakumeek egindako ekintzen kopurua
Herriko emakumeen memoria berreskuratzeko ikerketa lanari zabalpena eman.	BERDINTASUN SAILA BERDINTASUN KONTSEILUA				-Emandako zabalpena.
Espazio publikoan emakumeen memoria berreskuratzeko jarduerekin jarraitu (Andrakale, Leoka, eta abar.).	BERDINTASUN SAILA				-Berreskuratutako emakume izenak eta espazio

BERDINTASUN
KONTSEILUA
GOBERNAZIOA
HIRIGINTZA



3-HELMUGA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA GUTXITZEA ETA BIKTIMEN ARRETA HOBETZEA.

EAE En Emakume eta Gizonen berdintasunari buruzko Legearen arabera, (VI. kapitulua, 50. artikulua) emakumeen aurkako indarkeria hauxe da:

“Lege honen ondorioetarako, sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke. Jokaera horien artean sartuko dira emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bitzta publikoan edo pribatuan”.

Berdintasunari buruzko Legeak esku hartzeko bide bi ezartzen ditu: bata, ikerkuntza, prebentzio eta prestakuntzari buruzkoa; eta, bestea, etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen biktimak babesteko. Hernaniko II. Planak bide biak landu ditu eta 4. helburua lortzeko (“emakumeen aurkako indarkeria murriztea eta biktimei laguntza egokia ematea”) 4 estrategia proposatu dira:

3-HELMUGA: Emakumeen aurkako indarkeria gutxitzea eta biktimen arreta hobetzea.

1.go ESTRATEGIA: Elkarbizitza eta berdintasun balioak bultzatzea.

EKINTZA	ERAGILEAK	2014	2015	AURREKONTUA	INDIKATZAILEAK
Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna ospatzen jarraitu, indarkeriari aurre egiten dioten emakumeak bisibilizatuz.	BERDINTASUN SAILA BERDINTASUN KONTSEILUA				-Ospakizuna egiteko egindako ekintza kopurua.
Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioari eta arretari buruz udalak daukan informazio guztia (gidak, nformazioko liburuxkak, biktimei laguntzeko zerbitzuei buruzko informazioa...) eguneratuta mantendu eta udalaren lokal publikoetan eskuragarri dagoela bermatu.	BERDINTASUN SAILA ONGINTZA				-Egindako eguneratze kopura. -informazio topatu litekeen lokalen kopurua
Emakumeen aurkako sexu-erasoen kontrako kontzientziazio kanpaina aktiboak egitea (txotx garaia)	BERDINTASUN SAILA TXOTX BATZORDEA				-Eginiko kanpaina kopurua.
Hezkidetza programarekin jarraitu	BERDINTASUNA				- Proposamenen kantitatea - Programarekin bat egiten duten ikastetxe kopurua.

2. ESTRATEGIA: Emakumeen aurkako indarkeria aurrez ekiditea, hiri eta garraio plangintza egokiaren bitartez.

EKINTZA	ERAGILEAK	2014	2015	AURREKONTUA	INDIKATZAILEAK
Hiri debekatuaren mapan egindako hausnarketak eta erabakiak kontutan hartu etorkizunean burutuko diren proiektuetan	HIRIGINTZA SAILA BERDINTASUN SAILA				- Zenbat proiektuetan kontutan hartu den Hiri debekatuaren mapako irizpideak. - Zenbat hobekuntza egon diren.

3. ESTRATEGIA: Biktimen arretarako zerbitzuak hobetzea haien beharretara egokituz.

EKINTZA	ERAGILEAK	2014	2015	AURREKONTUA	INDIKATZAILEAK
Herriko jaietan, sagardotegi garaian, eta abar. eraso sexistak salatzekeo kanpaina egin.	BERDINTASUN SAILA BERDINTASUN KONTSEILUA				-Egindako ekintza kopurua
Ongintzara joaten diren pertsonen eskura jarri emakumeen kontrako bortizkeri egoerak detektatzeko eta hauentzako dauden zerbitzuen informazio foiletoak.	ONGINTZA PATRONATUA BERDINTASUNA OSASUN ZENTROA				- Banatutako foileto kopurua

4. ESTRATEGIA:Emakumeen aurkako indarkeria kasuak antzemateko, prebentziorako eta arretarako koordinazioa ezartzea gizarte eragile eta sailen artean.

EKINTZA	ERAGILEAK	2014	2015	AURREKONTUA	INDIKATZAILEAK
Indarkeriaren kontrako protokoloa sinatu parte hartu duten guztiek (ertzaintzaren erantzunaren zain).	BERDINTASUN SAILA ONGINTZA UDALTZAINGOA ERTZAINZA OSASUN SAILA				- Protokoloa sinatzea
Protokoloaren jarraipena egiteko egitura berrikusi eta egokitu.	BERDINTASUN SAILA ONGINTZA UDALTZAINGOAK ERTZAINZA OSASUN SAILA				- Proposamen zehatza. - Datu bilketa fitxak.

4-HELMUGA: BERDINTASUNA LORTZEKO LANEAN, GIZONEK ERE PARTE HARTZEA ETA GIZONEZKOA IZATEAREKIN ZERIKUSIA DUTEN GAIAK LANTZEA.

Apurka-apurka gizonentzako ekintzak sartzen ari dira Berdintasun Planetan; hala ere, lan handia dago oraindik egiteko. Emakume eta gizonen arteko berdintasunerantz abiatu nahi badugu, beharrezkoa da gizonezkoek ere prozesuan parte hartzea. Gainera, horrek emakumeen egoera ez ezik, gizonezkoena ere hobetuko luke, genero-ideologiak beraien bititza ere baldintzatzen du eta. Bostgarren helmuga honek zerikusia dauka batetik gizonekin lan egitearekin (kontzientzia hartzea, sentsibilizazioa eta erantzukidetasuna bultzatzea); eta bestetik, gizona izatearen inguruan lan egitearekin. Lehenengo estrategian soilik gizonei zuzendutako ekintzak daude, emakume eta gizonen artean dauden desberdintasunen inguruko kontzientziarioa eta sentsibilizarioa helburu. Bigarren estrategiak zera lortu nahi du, gizona izateak gizonei ekarri dizkien arazoez jabetzea. Azkenik, hirugarren estrategian erantzukidetasuna sustatzeko ekintzak daude.

4-HELMUGA: Berdintasuna lortzeko lanean, gizonek ere parte hartzea eta gizonezkoa izatearekin zerikusia duten gaiak lantzea

1.go ESTRATEGIA: Gizontasunari buruz hausnartzeko espazioak sortzea.

EKINTZA	ERAGILEAK	2014	2015	AURREKONTUA	INDIKATZAILEAK
Hernaniko gizonen taldearen ekintzak babesten jarraitu eta herritarrei ezagutzera eman.	BERDINTASUN SAILA GIZON TALDEA				- Ekintza kopurua.

2.go ESTRATEGIA: Erantzunkidetasuna bultzatzea.

EKINTZA	ERAGILEAK	2014	2015	AURREKONTUA	INDIKATZAILEAK
Erantzukidetasuna eta bizitza independienterako trebetasunak bultzatzeko kanpainak, tailerrak eta trebakuntza eta jarduerak antolatzea, gizonen kolektibo zehatzei zuzendurik (adinekoak, helduak, gazteak eta umeak eta aitak).	BERDINTASUN SAILA GIZONEN TALDEA IKASTETXEAK				- Egindako jarduera kopurua - Parte hartu duten gizonen kopurua

EBALUAKETA

EKINTZEN JARRAI PEN FITXA

(Ekintza egiteko ardurandunak bete behar du, eta amaitzean Berditnasun teknikariari bidali)

EKINTZA	HELMUGA: ESTRATEGIA:
EKINTZAREN DESKRIBAPENA ARDURADUNA ERAGILEAK DATA AURREKONTUA EKINTZA GARATZEKO ZINTASUNAK	
EKINTZAREN BALORAZIOA (Planean zehaztutako indikatzailenetatik abiatuz) EKINTZAREN ERAGINA PARTE HARTZAILEAK	EMAKUME KOPURUA: ADIN TARTEA: GIZON KOPURUA: ADIN TARTEA:

ESTRATEGIEN EBALUAKETA

(Berdintasun teknikariak egiteko)

Ekintzen jarripen fitxen laburpena

ESTRATEGIA	HELMUGA:
EGINDAKO EKINTZEN PORTZENTAIA	
PLANEAN AURRIKUSI EZ DIREN EKINTZAK	
AURREKONTU TOTALA	

Estrategien balorazio orokorra:

- Lortu al da estrategia guztiz garatzea?
- Zein zailtasun izan dira?
- Nolakoa partehartzea izan da proposaturiko ekintzetan?
- Bete ahal dira onartutako konpromezuak? Zein neurritan?
- Zein eragin izan du herritarrengan, elkarteeengan eta oro har herrian?

HELMUGEN EBALUAKETA

(Berdintasun teknikariak egiteko)

HELMUGA

GARAPEN MAILA:

META BAKOITZEKO ESTRATEGIEN GARAPEN PORTZENTAIA (estrategia bakoitzean gartuako ekintza portzentaiaren arabera kalkulatu).

Helmugen balorazio orokorra:

- Abiatutako egoerarekin alderatuz, helmugara bidean, zein tokitan aurkitzen gara? (Helmuga bakoitzeko analisisia egin)
- Planeko helmugak lortzeko egokiak al dira zehaztutako estrategiak?
- Ikusi al da beste estrategiak posiblerik?
- Errealistak al dira helmugak?
- Zein izan da sailen konpromezu maila helmuga bakoitzarekiko?

- Zeintzuk izan dira sailek topatutako zailtasunak hartutako konpromezuei eusteko?
- Mantendu al da herritarren aniztasuna (sexua, adina, jatorria, behar bereziak, etab.) egin diren ekintzetan?
- Herritar talde ezberdinak (gizonak, emakumeak, gazteak, adinekoak, europar batasunaz kanpokoak, behar bereziak dituztenak, etab.) izan al dira egindako ekintzen onuradun?
- Herritarren partehartzea aktiboa izan al da planaren garapenean?
- Zein gizarte eragileren laguntza izan da plana garatzerako orduan?
- Sendotu al dira lehenagotik zeuden, zerbitzu, baliabide eta jarduerak?
- Lortu al da koordinazio, datu bilketa, etab-etarako zerbitzu, baliabide eta tresna iraunkor bat sortzea?
- Egiteko modukoak al dira planean jasotzen diren teknikariaren funtzioak ?

- Zein zailtasun egon dira plana ebaluatzerako garaian?

- Egokia al da ebaluaketarako metodologia?